

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua deskribatzen hasteko, esan beharra dago, hasieran hainbat ideia genituela buruan: pastillero automatiko bat, gaur egungo gazteriarentzat hainbat motatako ekintzen atolaketa, dutxa inteligente bat, plastikoz beteriko ozeanoak garbituko dituen robot-a... Baina, Brainstorming luze baten ondoren, gure ametsetako proiektu berritzailearekin topo egin genuen. Mugikorretan, aplikazio baten bitartez eskainiko dugun parking zerbitzua.

Ondo jakingo duzuen bezala, Donostian eta batez ere azkenaldian obra ugari daude eta, kotxe edo motorren aparkalekua topatzea benetan zaila gerta dakioket edonori. Gainera, arazo honek, kutsadura areagotzen du, izan ere, aparkalekua bilatzen igarotzen dugun denbora luze horretan, gas kutsakorrak isurtzen jarraitzen dugu; karbono dixidoa esate baterako. Horregatik, egoera honi aurre egiteko asmoz adostu genuen proiektu hau aurrera eramatea, besteak alde batera utziz.

Gure ideia, aplikazioaren deskargarekin hasten da, "COPPO" izenarekin aurki daitekeena. Deskarga, doainik izango da. Behin hau mugikorrean instalatuta dugunean, aplikazioan sartu eta gure perfila sortzeko aukera azalduko da: izen-abizenak, sexua, adina, NAN zenbakia, gidatzeko baimena, telefono zenbakia eta beste datu gutxi batzuk, sartu beharko ditu bezeroak. Ondoren kotxe, motor edo bien erabiltzailea zaren, galdetuko du sistemak, eta hiru matrikula desberdin idazteko aukera edukiko du erabiltzaileak. 3 matrikula hauen konbinazioa bezeroak aukeratuko du. Esaterako: kotxe bat, edo 2 kotxe eta moto bat, etab. Ondoren, gailu hauen jabea dela egiaztatu beharko du, hauen, dokumentazio guztia scaneatua app-an sartuz. Berehala, guk, dokumentu hauen ofizialtasuna frogatuko dugu eta hala bada, erabiltzailea hurrengo pausora pasako da: suskripzio plan aukeraketa.

Bertan, hiru tarifa desberdin eskainiko ditugu: soilik motor erabiltzaileentzat, 2,99€/ hilabeteko. Soilik kotxe erabiltzaileentzat, 4,99€/ hilabeteko. Eta azkenik, matrikula bat baino gehiago sartu duenarentzat 6,99€/ hilabeteko plana eskainiko dugu (baliteke enpresa martxan jartzean, prezioen aldaketa egotea errentagarritasun edo garestitasun arrazoiengatik).

Hau bukatu ondoren, aplikazioa martxan jarriko da eta Donostian dauden aparkelu libreak erakutsiko dizkigu kolore berde batez (auzoka eta mapa batean). Bezeroak aparkaleku bat aukeratuko du eta aplikazioak, google mapseko sateliteen bitartez, bezeroaren kokalekutik aparkalekura dagoen distantzia kalkulatu du minututara pasaz (semaforoak eta trafikoa kontuan harturik). Horretarako, zerbitzua erostean VIA T moduko bat emango zaio erosleari garraioan jarri beharko duena. Ondoren, toki hori erreserbatu egingo da eta aparkalekuan pintxo batzuk igoko dira (horrela

inork ezingo du hor aparkatu). Kotxea bere helmugara iristean, pitxoak jetsi egingo dira VIA T modukoa detektatzerakoan eta kotxeak aparkatzeko aukera izango du; denbora eta gasolina aurreztuz.

Motorren kasua guztiz desberdina da, ezingo delako tokirik erreserbatu baina aparkatzerako orduan berdin berdin lagungarria gertatuko da. Esan beharra dago zerbitzua martxan jarri baino lehen, motorren aparkalekuetan aparkatzeko marrak margotzeko asmoa dugula (orain ez dago marrarik), modu honetan, motorren aparkaleku sistema martxan jarri eta regulatu dezakegulako.

Aplikazioak mapan toki libreak (berdez) markatuko dizkigu eta aparkalekuen lurrean jarriko dugun txapa luze batek moto bat dagoen ala ez detektatuko du. Txapa luze hori horizontalki kokatua egongo da eta motor bat sartzean, detektatu eta automatikoki aplikazioan gorriz jarriko da toki hori. Nahiz eta erreserbatzeko aukerarik ez egon, motorrak joan eta etorri ibiltzen dira beraz toki libreak maiz egongo direlakoan gaude, motorren aparkalekuen rotazioa handiagoa izasngo da kotxeetan baino.

Behin kotxea aparkatu denean, aplikazioak, egongo zaren denboraren arabera, parking- a ordaintzeko aukera emango dizu (OTA). Dagoeneko badaude aplikazioak parkimetro zerbitzua ematen dutenak mugikor bidez, e-park, telpark edo EIParking esaterako. Horregatik, gure asmoa, hauetako aplikazio batekin fusionatzea da, honek, bi zerbitzuak aplikazio berdinean eskaintzea ahalbidetuko du. Hala ere, fusioa posible ez bada, gure parkimetro zerbitzu propioa garatzeko asmoa dugu.